

## Martutene



Alberto Elasegi

## 'Izartu'-ren zain

Duela aste batzuk, Martutenen zenbait lan egiteko proiektua igorri zion Udalak Eusko Jaurlaritzari, proiektuok diruz lagun ditzan eskatuz. Industrialdea berri-  
tzea, Ametzagainako parkea egokitzea, eta Pilarreko Andre Mariaren auzunean obrak egitea da Udalaren asmoa.

**E**usko Jaurlaritzak, bigarren aldiz, Izartu ekimena martxan jarri du. Jaurlaritzak, ekimen honen bidez, egoera txarrean dauden auzoak zaharberritzen lagundu nahi du. Guztira, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako 124 udalerrik aurkeztu dute egitasmoren bat. Jaurlaritza udalek bidalitako txostenak aztertzen ari da, eta uztailaren 22a bai-

no lehen jakinarazi beharko du zein proiektu babestuko dituen. Donostiako Udalak bederatzi milioi euroko diru laguntza eskatu du, Martutenen lanak egiteko. Udalak behar-beharrezkotzat jo du auzoan esku hartzea. Horregatik, Enrique Ramos zinegotziak azaldu duenez, Jaurlaritzak eskatutakoa baino diru gutxiago eman go balu ere, berritze lanak



Alberto Elasegi

Pilarko Andre Mariaren auzuneko etxeen aurrealdeak sendotu nahi dituzte.

**Udalak bederatzi milioi euroko diru laguntza eskatu du**

### Hamaika lan

Udalak auzoko hainbat tokitan lanak egitea aurreikusi du. Industrialdea da horietako bat. Bestalde, Martutene pasealekuko zirkulazioa gutxitu nahi du. Martutene pasealekuan autoen, oinezkoen eta txirrindularien elkarbizitza bultzatu nahi du Udalak. Berdeguneei dagokienez, Ametzagaina parkea egokitzea, eta hara iristeko bidegorria egitea jaso dira proiektuan.

Pilarreko Andre Mariaren auzunean eta ingurumarietan, etxeen aurrealdeak eta haur jolastokia berri nahi dira. Bes-

talde, Arantzazuko Ama ikastolako jolastokia estali nahi dute. Etxarri Enen, azkenik, teknologia berrien zentroa egin nahi dute —Larraxoko eDonostia.net-en antzekoa—. Gainera, egun ikastola dagoen tokian gaztelekua jartzea aurreikusi dute. Aipatutako proiektuetako batzuk auzotarren aspaldiko eskaerak dira.

### Jaiak kolokan

Pilarko jaiak antolatzeke, jende gutxi dago lanerako prest. Hori dela eta, ez dago argi aurten jaiarik izango ote den. Lagundu nahi duenak gaztelekura joatea besterik ez du, asteazkenez, 20.00etan.